



2 KOOPERAZIOA Urchueguia alkate ohiak ostiralean deklaratu zuen

Lasarte-Oriako Udalak Ana Urchueguia alkate ohiaren kooperazio kudeaketa zela eta, diru publikoen prebarikazio eta bidegabeko ustezko erabilpenagatik salaketa jarri zuen eta ostiralean, alkate ohiak epailearen aurrean deklaratu zuen. Urchueguiak 2000 eta 2010 urte artean Somotoko herriarekin egindako lankidetzari buruzko azalpenak eman behar izan zituen eta egindako lana defendatu zuen.

3 JAIK Zabaletako Jaiek bihartik aurrera alaituko dute auzoa

Bihar hasi eta igandera arte jai giroa nagusi izango da Zabaleta auzoan. Hurrei zuzendutako jokoak, eskulanak, musika, zozketak, antzerkiak, dantzak, txapelketak, bertsoak, dema berezia, proba mixta... denetarik dago Teresa sorginaren bisita ospatzeko, baita iaz arrakasta izan zuten sorgin-krosa eta txirrindularitza lasterketak ere. Jai Batzordeak auzotar eta herritarrek gonbidatzen ditu jaietz gozatzera.



Hitz idatziak doinu bihurtzen

Literaturak eta bertsolaritzak bat egin zuten bertso saio berezian



Hamaika testu, hamaika ahots eta hamaika doinu entzun ziren Manuel Lekuonako aretoan. Hitz eta doinua bat egin ziren bertso bihurtzeko.

Literatura izan zen ardatz "Doinuak lumaz" bertso saio berezian. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañak herriko 11 idazlek aukeratutako edo idatzitako testuei aurre egin behar izan zieten. Etorkizuna, hauteskunde garaiko promesak, gaztetako oroitzapenak... gai ezberdinak jorratu ziren Udaberriko bertso saioan.

Takunek antolatzen duen Udaberriko bertso saioa ez da ohiko saioa izaten eta argi geratu zen berriro ere ostiralean "Doinuak lumaz" emanaldian.

Manuel Lekuona kultur etxeko aretora hurbildu ziren herritarrek Ane Labaka herritarren, Andoni Egañaren eta Maialen Lujanbioren lanaz gozatu ahal izan zuten.

Bertso saioan literatura eta hitza izan ziren protagonistak. Zehazki, herriko 11 idazleek aukeratutako testuak, baita haien ahotsak ere. Izan ere, haien testuak irakurri baitzituzten zuzenean Miren Artetxe ilobaren edo Ixiar Arteagaren ahotsean, Cesar Marcosen marrazkien bidez, bideo edo audioan.

Baina ez ziren hitzak soilik entzun oholta gainean.

Amaia Atxega, Amaia Dorronsoro eta Lierni Arozena piano joleek, Bixente Beltranek klarinetearekin edo Tomax Lizardik gitarrekin testuei doinua jarri zieten.

Uxue Loinazek testu bakoitzeko gaia aurkezten ziren bertsolariei eta besteak beste, karrera amaitzearen den ikaslearen paperean jarri zen Ane, Andonik fusilamendu bat ikusi duen artzai batean, Maialenek Egañak eta Labakak erabiltzen duten ahotsa azaldu behar izan zuten edo Gipuzkoako txapelketara begira Andoni Egañak Ane Labaka probatu behar izan zuten.

Barre, algara eta txalo zaparrada. Jendeak ederki erantzun zuen bertsolariek egindako lanari.



Bertsolariek idazleek irakurritako testuen gaiei erantzun behar izan zieten.

MAiTE
ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pulsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

2015eko uda-ikastaroa
UDAL EUSKALTEGIAN
1., 2. eta 3. MAILA
AZTERKETA PRESTAKUNTZA: B1, B2 ETA C1 (EGA)
16 urtetik gorakoentzat

• Astelehenetik ostiralera
• 3 orduko ikastaroa (9:30- 12:30)
• Prezioa: 97,20 €

• Diru-laguntzak badaude (baldintza batzuk beteta). Galdetu Udal Euskaltegian.

Ikastaroaren iraupena: Uztailaren 1etik 28ra.
Matrikulaldia: ekainaren 1etik 15era
Bulego ordutegia: 08:30 - 19:00

Tel.: 943 361621 e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus

HAUTESKUNDEAK EAJ-PNVren eskertza

Lasarte-Oriako Euzko Alderdi Jeltzaleak eskerrak eman dizkie igandeko hauteskundeetan EAJ-PNVrengan konfiantza adierazi zuten herritar guztiei.

Komunikabideei bidalitako oharrean, alderdiak "igoera" izan duela nabarmendu du Estitxu Alkorta bozeramaileak. "Izan ere, azken udal eta foru hauteskundeetan 1091 bozka jaso zituzten jeltzaleek, eta, orain, 1428 (%30ko hazkundera)". Eta hirugarren zinegotzia lortzeko hiru bozkaren faltan egon dira.

Era berean, pozik eta herriaren alde lanean jarduteko gogotsu azaldu dira datozen lau urtetan alderdia ordezkatzuko duten bi zinegotziak, Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki.

UDAL MUSIKA ESKOLA Real Sociedad fundazio egunean

"Real Sociedad Fundazioaren eguna" girotzen izan ziren atzo Udal Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak. Jaialdi hone-tan 50 futbol eskoletako lehen urteko alebin taldek parte hartu zuten. Baina futbolaz gain, beste hainbat ekintza ere izan ziren Zubietako instalakuntzetan eta Udal Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleek haien aletxoak jarri zuten musikaz alaituz.

GURE ESKU DAGO "Ta hi, hi nun hago?" bideoklipa

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak "Ta hi, hi nun hago?" bideoklipa argitaratu du. Honen bitartez, ekainaren 21ean Donostiako Anoetako estadioan egingo den ekitaldian parte hartzera gonbidatzen ditu oraindik saretu ez diren herritarrak. Ekimenarekin bat egin edo ekainaren 21eko sarrerak eskuratzeko ostirala eta larunbatetan Okendon jartzen dute mahaia.

SOMOTO AUZIA

Kudeaketaren defentsa

Urchueguia alkate ohiak ostiralean deklaratu zuen

PSE-EEk 2000 eta 2010 urte artean Udal gobernuan zela kooperazio arloan egindako kudeaketari buruz hitz egin behar izan zuen ostiralean Ana Urchueguiak epaitegietan.



Ana Urchuegia alkate ohiak ostiralean deklaratu zuen epaitegietan.

TXINTXARRI

Ana Urchueguiak Donostiako 3 auzitegiko epailearen aurrean deklaratu zuen ostirala goizean. "Diru publikoen prebrikazio eta bidegabeko usteko erabilpenagatik" Lasarte-Oriako udalak jarritako salaketaren inguruan azalpenak eskaini zituen alkate ohiak.

Komunikabideei eskaintak tartean alkate ohiak Lasarte-Oriako Udaleko buru

zeneko kooperazio lana defendatu zuen, "Somotoko herriarekin 10 urteko lankidetza arrakastatsua izan zen".

Honetaz gain, Bilduk lau urte hauetan egindako kooperazio lana kritikatu du, "nazioarteko komunitatearekin egindako lana mesprextatu du".

Aurreko astean deklaratu behar zuen Urchueguiak, baina orduan atzerapena eskatu eta ostiralera aldatu zen hitzordua.

Lasarte-Oriako Udalak martxoko ohiko udalbatzarrean ezagutzera eman zuen epaileak salaketa tramitera onartu zuela.

Musika zentzuen gainetak

Euskal doinuak, zein nazioartekoak entzuteko aukera izan zen atzo Ama Brigitarren komentuan ONCE erakundeak babestutako Alaia abesbatzak eskainitako kontzertuan.

Saio ederra eskaini zuten abesbatza osatzen duten 40 kideek, gehienak itsuak Vineta Iglesiasen zuzendaritzapean.

Doinu ezagunez gozatu ahal izan zen hala nola, Ansorenaren Mendi aldera goaz edo Adelita doinu mexikarra.

Gainera, aurrez 11:00etako mezan parte hartu zuten hainbat doinu eskainiz, hala nola, Molfinoren O Sacrum convivium.



Gau parteko solasaldiak

Auzoa" lanak eman zion Amaiera larunbatean Kukuka antzerki eta dantza eskolako 13. asteko lehenengo zatiari.

Gau partean, auzotar eta kale gorrian bizi diren pertsonen arteko solasaldiak aurkeztu zituen taldeak. Krisia, etxe kaleratzeak, alkoholis-

moa edo bikote arazoak... hainbat gai jorratu ziren Manuel Lekuonako aretoan irudikatu zuten auzoko parkean.

Atsedenaldia


Aste honetan, antzerki eta dantza asteak etenaldia izango du. Baina Kukuka antzerki

eta dantza eskolako kideen emanaldiak ikusteko aukera izango da Zabaletako Jaietan asteazken, ostiral eta igandean.

Atsedenaldi horren ostean, ekainaren 8an, arratsaldeko 19:00etan emanaldi jarraipena emango zaie LH6 mailako eta Zubietako taldeekin.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna,
Nerea Eizagirre

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maider Seguro, Jexux
Artebe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galarri
Informazioa:
Xabier Amadoz

JAIK

Zabaleta auzoan Teresa sorginaren zain

Asteartetik aurrera, hamaika ekintza izango dira Zabaletako Jaietan

Egun gutxi falta dira Teresa sorginak Zabaleta auzoan bereak egiteko. Bihartik igandera, jai giroa nagusi izango da auzoko Antonio Blas plaza eta inguruetan. Haur edo helduei zuzendutako hamaika ekintza antolatu dira auzoko eta herriko elkarte edo erakundeek laguntzaz. Hauen artean, Zabaletako II. Sorgin-Krosa edo txirrindularitza lasterketak.

TXINTXARRI

Asteartetik ostegunera, 18:00etatik aurrera, Zabaleta auzoa igo-tzen diren hurrek ederki pasatzeko aukera izango dute. Nagusiki haiei zuzendutako ekintzak, jolasak eta bonba japoniarrak antolatu baitiztuzte Zabaletako jaie-tako lehenengo hiru egune-tan.

Asteartean, material birziklatuekin eskulanak egin eta kamisetak margotuko dituzte. Hori dela eta, jai batzordeak ohartarazi bezala, kamiseta zuria eraman behar dute gaztetxoek.

Asteazkenean, berriz, herri-kirolak, jolasak eta opari arrantza izango dira.

Ostegunean, edozein adinetako hurrek, zein hauen guraso, aitona-amona edo anai-arrebek jolasteko aukera bikaina izango dute Amaraun

Klubeko lagunek antolatutako "Jolasen Altxorra" ekimenean.

Honetaz gain, asteazkenean, antzerki emanaldia izango da eta ostegunean, 19:00etan Udal Musika Eskolako trikitilarien kontzertuaz gozatu ahalko dute plazara gerturatzen direnek.

Egitaraua

Baina Teresa sorgina ez da ostiralera arte iritsiko auzora. Iritsi baino lehen antzerkia emanaldia eta txokolate jana izango dira guztientzat.

Ostean, Teresa sorginaren etorrerarekin batera erritmoa eta dantza izango dira nagusi Zabaletako jaie-tako egitarauan. Dantza herrikoa, Din-biBanda batukada, Jalgune elkarte-lagunen dantza saioa, Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza garai-kideetako taldeak eta Itzartu taldearen erromeria, hain zuzen ere.



Iaz herritar eta auzotar ugari bildu zen Antonio Blas plazan Teresa sorginari ongi etorria egitera.

Larunbatean, iaz bi kirol ekintzek izan zuten arrakasta ikusirik, bigarren urtez, Zabaletako Sorgin-krosa eta txirrindularitza lasterketak izango dira.

Auzotar eta herritarrek goizean auzoko kaleetan barrena kros sorginduan parte hartu ahalko dute.

Arratsaldean, aldiz, 16:30etik aurrera, alebin eta infantil mailako txirrindulari lasterketez gozatu ahalko da. Honetan izango dira Bazpi txirrindularitza eskolako kideak lehiatzen.

Joxe Migel Aranzadiren omenezko mus eta tute txapelketek ere ez dute huts egingo.

Eta haurrentzako puzgarri eta jokoek bertso saioari emango diote pasoa.

Gazteek, gaueko ordu txikiak arte gozatuko dute gazte rock gaueko taldeekin.

Euskal giroa

Igande goizean, baserritar giroa izango da nagusi. Euskal dantza eta tortilla lehiaketa izango dira eta Jai batzordeko kideek jakitera eman dutenez,

bi berrikuntza izango dira, batetik Pepene baserriko idi eta zaldi arteko dema lehia ikusi ahalko da eta bestetik ohiko proba mixtoan ez da auzoko talderik izango.

Jaie-tako azken orduetan, herri bazkaria, dantza, kantua eta toka txapelketak ikusiko ditu Teresa Sorginak erratza hartu eta mendira bueltatu baino lehen.

Zabaleta auzoko Jai Batzordeak auzotarrak eta herritarrak gonbidatzen dituzte Zabaletara igo, jaie-tan parte hartu eta ekintzez gozatzera.

Aste Berdean, kartoiaren gaikako bilketa eta baratzea etxean

Ez kaineren 5ean, ostiralean, Ingurumenaren eguna ospatzen da mundu mailan. Hainbat ekimen antolatzen dira egun hau gogora ekartzeko eta Lasarte-Oriako Udalak bat egin nahi du ospakizun hauekin. Horregatik, Aste berdea ospatuko du aste honetan eta bi lerro landuko ditu, batetik komertzioen kartoiaren gaikako bilketa eta bestetik herritarrek etxean baratza ekologikoa egitea.

Lasarte-Oriako Udalak hiri-hondakin gutxiago sortzearen eta gehiago birziklatzearen aldeko ekimenak sustatu nahi ditu. Aurten zehazki herriko komertzio eta ostalaritzako establezimenduetan sortzen diren kartoi hondakin guztiak gaika modu egokian biltzea du helburu.

Komertzioek kartoi hondakinak edukiontzietan utziz gero, hauek betetzen direla azpimarratu du Udalak. "Edukiontzi kanpoan uzten direnak ez dira birziklatzen,



Komertzioei zuzendutako kartoiaren gaika zerbitzua sustatu nahi da edukiontziak bete ez ditzaten.

sortzen dituen garbitasun arazo eta itxura txarraz gain".

Horregatik, Sanmarko Mankomunitateak sortzen diren kartoi hondakinak komertzio edo ostalaritza establezimenduetatik bertatik biltzeko doako zerbitzua eskaintzen duela ematen dute jakitera. Hau asteartero 9:30etik aurrera komertzioz komertzio doa kartoiak biltzen. Hori bai, dendariak kar-

toi hondakinak tolestuta eta pilatuta eduki behar dituzte ordurako.

Aste berdearen barruan, gaurtik ostiralera bi ingurumen-hezitzaile herriko 300 bat komertzio eta ostalaritza establezimendu bisitatuko dituzte zerbitzuaren informazioa eman eta parte-hartzera animatuz. "Herriko komertzio eta ostalaritza establezimenduen parte-hartzeari esker bir-

ziklatze emaitzak hobetzea lortuko dugu eta gure kaleak garbiago eta txukunago izango ditugu".

Egun 80 establezimendu daude izena emanda Lasarte-Orian kartoi bilketa zerbitzu horretan. Honetaz baliatzeko, komertzioek Sanmarko Markomunitatera deituz, 943 21 49 77 izena eman behar dute.

Honetaz gain, bi ingurumen-hezitzaile hauek kale triziklo berezi batzuetan ibiliko direla jakitera eman du Udalak. "Horrela, herritarren arreta bereganatuko dute eta birziklatzearekin izan dezaketen edozein zalantza argitze-ko aukera paregabea izango dute".

Baratzea balkoian

Bestetik, herritarrei zuzendutako "Baratzea nire balkoian" ikastaroa eskainiko da. Honetan lorontzietan baratzki ekologikoak landatzen ikasiko da. Helburua "herritar gehia-

gok beren balkoietan baratzak izatea" da.

Hala nola, balkoi batean baratzkiak zaintzeko moduak, hazteko metodoak, garaiak, substratu motak eta loreontzi ezberdinak erakutsiko dituzte tailer honetan.

Ikastaroa Udal-Pabiloian, Kale Nagusia 56, emango da, ekainaren 5ean, ostirala arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Doakoa da eta gehienez 20 pertsonako taldea osatuko da.

Apuntatzeko Hirigintza eta Ingurumen departamentuarekin harremanetan jarri behar da 943 37 61 89 telefonora deituta edo ingurumena@lasarte-oria.org helbide elektronikora mezua bidalita. Izen-Abizenak, helbidea, telefonoa eta NAN dira eman beharreko datuak.

Udalak herritarrak animatzen ditu honetan izena eman eta balkoiak eta terrazak baratzez betetzera.

Ez galdu aukera!!
Zure zain gaude!!

Buruntzaldeko
autoeskoletan
gidabaimena euskaraz

GIDABAIMENA **MERKEAGO**
LOR DEZAKEZU!!

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain		
BENGOTXEA	Juan Bautista Erro 9	943 59 44 06
MENDI	Agustin de Leiza 11	943 30 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3	943 55 05 34
LAGUNAK	Urbietia 7	943 55 34 16
OTAMENDI	Karobietia 1	943 33 14 19
	Izpizua 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
IZARRA	Geltoki 11	943 37 70 05
LASARTE	Nagusia 5	943 37 06 92
MUGICA	Ganbo 1	943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irazu 2	943 37 69 36

MERKEAGO
ATERATZEA
NAHI?

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

**AZKEN TEKNOLOGIAN
MURGILDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN**

EMAN
BIDEA

HAUXE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!

Drain
gidabaimena
EUSKARAZ

ETA HORI GUTXI
BALITZ...

**ZOKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA
11 SARI BURUNTZALDEAN:
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GERTUEZ)**

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gaititu dutenek hartuko dute parte zoketan. (Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak

ESKOLA KIROLA..

Eskola Kirolaren festa handia ikasturteari amaiera emateko

250 bat gaztetxo bildu ziren jaialdian, kirol ezberdinak egin zituzten

Amaitu da 2014/15 denboraldia Eskola Kirolean ere. Aurten, 430 gaztetxok egin dute Eskola Kirolaren hau-tua. Denera hamabi kirol izan dituzte aukeran: atletismoa, erritmo kirolak, futbola, gimnastika, hastapen kirola, igeriketa, judoa, multikirola, natur ekin-tzak, pilota, saskibaloia eta tenisa. Ikasturtea modu ezin hobean amaitzeko, festa handia antolatu zuten Michelingo kirol-gune eta kiroldegian. Gaztetxoek primeran pasa zuten.

TXINTXARRI

Ikasturtearen balorazio positiboa egiten du Iñaki Aristondo. Itakun kultur elkarteak langile eta Eskola Kiroleko herriko arduradunak: "Gustura gaude denboraldiak eman duenarekin. Aurten gainera aurrerapausoa eman dugu entrenatzaile eta begirale guztiei kontratua egin zaielako. Esfortzu handia eskatu du zentzu askotan eta alde ezberdinetatik. Gure helburu nagusia gaztetxoak euskara ahoan, kirola eginez gozatu dezaten da eta horretarako ari tu gara lanean".

Lanketa horretan, begirale guztien lana eta bereziki Corka Segurrolarena eskertu nahi izan ditu Aristondok.

Aurrerantzean ere, lanketa horrekin segitzeko asmoa du

Ttakun euskara elkarteak, eta horretarako hasiak dira 2015/16 denboraldia prestatzen. Fitxak datozen asteetan banatuko dituzte herriko ikas-tetxeetan eta izen-emate epea ekainaren 12ra arte egongo da irekita. Fitxa bete eta ikas-tetxean banatu beharko da.

"Lanean ari gara datorren urteari begira, hobetzeko gau-zaren bat daukagun arren, aurtengoa bezain urte ona izatea espero dugu", azaldu du Aristondok.

Festa handia

Michelinen futbola, atletismoa, errugbia, herri-kirolak eta eskubaloia egin ziren, kiroldegian berriz, saskibaloia. Azkenik, Enara Ieregik zuzendutako erritmo-kiroletako neskek dantza emanaldia egin zuten eguna



Bost gunetan banatuta, futbola, atletismoa, errugbia, eskubaloia eta herri-kirolak egin zituzten Michelinen

borobiltzeko. Festa bukatzeko, opari eta sorpresak egon ziren parte-hartzaile guztientzat.

Guraso elkatei eta Udalari egindako lana eskertu nahi izan die eskola kiroleko arduradunak eta baita herriko kirol-elkartei ere: Buruntzaldea IKT, LOKE, Ostadar eta Intzak emandako babesak izan ditu gogoan hain zuten. Azken festa handia antolatze-laguntza eman dieten Urbil, Gipuzkoa Basket eta Kutxari ere esker ona azaldu nahi izan die Aristondok.



Saskibaloia partidak ere izan ziren kiroldegian.

PILOTA..

Herriarteko txapelketatik at geratu da Lasarte-Oria


Iazko balentriak ez du segidarik izango. Herriarteko txapelketari agur esan dio herriak. Joan den astean Zizurkil 3-0 galdu zuten lasarteoriarrek Intxaur pilotalekuan.

Julen Urruzola eta Alex Etxeberria kadeteek 22-6 galdu zuten, Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasola jubenilek 22-10 eta Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola seniorrek 22-5. Emaiz horiekin zail zegoen asteburu honetan markagailua iraultzea.

Michelingo pilotalekuan jokaturako itzulerakoan, Zizurkil izan zen nagusi kadete eta jubenil mailan. Kadeteek 12-22 galdu zuten eta jubenilek, aldiz, 11-22.

Seniorretan berriz, Lasarte-Oriak aukera gehiago izan zituen Zizurkilek aurrelaria aldatu zuelako. Partida berdindua ikusi ahal izan zen eta herriarrek 22-20 irabazi zuten.

Honela, 1-5ekoarekin final-zortzirenetan kalean da Lasarte-Oria.



FUTBOLA..

Jose Cantos presidentea omendu du Texasek

Hogei urte egin ditu Jose Cantosek Texasen futbol alorreko presidentetza karguan, baina uzteko garaia iritsi zaiola uste du osasun arazoak tarteko. Joan den astean omendu zuten.

Urte hauetan egindako lana eskertu nahian, bazkaria egin zuten Araetan zuzendaritza batzordeko kide, entrenatzaile, jokalarik eta senideek.

Denera 35 lagun joan ziren bazkaria. Menua dastatu ostean, David Mateos eta Haritz 'Pitxi' Hernandez Texaseko kideek hartu zuten hitza Jose Cantos berarekin batera. Denboraldi amaierako hainbat sari eman zituzten hirurek, jokalarik onenentzat.

Kasu honetan, saridunak Alex Izagirre (jubeniletako jokalarik jatorrena), Martin Verdugo (jubeniletako jokalarik onena), Javier Torres (Erregionaletako jokalarik jatorrena) eta Iosu Garcia (Erregionaletako jokalarik onena) izan ziren. Denboraldi honetan kolabo-



Jose Cantos, eskubian, Texaseko zuzendaritzak emandako oroigarria jasotzen.

ratzaile izan dituzten ISU Leihok eta Aizpurua Pinturak bi babesleekin ere detailetxo bat eduki zuen klubak; Toño Garcia eta Juan Mari Aizpuruak jaso zituzten oroigarriak.

Baina eguneko benetako protagonista Jose Cantos izan zen. Hogei urtez alboan izan duen Manuel Isasaren eskutik jaso zuen oroigarria eta emozio handiko uneak izan ziren bientzat.

Cantosek azaldu zuen osasun arazoak dituela eta hori izan dela kargua uzteko arrazoia. Laguntza emanez ondoan izan dituen guztiak gogoratu eta hitz eman zuen errekupekatzen denean "indar handiagor" itzuliko dela "gazteek futbolaz gozaten jarrai dezaten".

Araetako eskenatoki txikian familia-argazkia atera eta festak jarraitu egin zuen giro onean.

— Agenda —

Astearte eta ostegun, 20:00etan, Okendo plaza



Sorgin dantzako entseguak

San Pedro jaietan Sorgin dantzan parte hartzeko, funtsezkoa da dantzak menperatzea. Urte luzez dantzatu gabe egon ondoren, iritsi da garaia pausoak berriz gogoratzeko. Horretaz gain, ekitaldi irekia izanda, nahi duten herritarrek parte hartu dezakete honetan, haur zein heldu, entseguetara gerturatu eta dantzan ikasteko aukera izango dute denek. Hilabete honetako astearte eta ostegunetan izango dira saioak, eguraldi onarekin Okendon egingo dira eta bestela, Garaikoetxea eraikinean.

11:00etan, Tortilla lehiaketa.
12:15ean, Pepe Enea baserriko Imanolen zaldia eta Inazioren idiaren arteko dema.
13:15ean, Proba mixto nagusia.
14:30ean, Herri bazkaria.
17:30ean, Kantu festa "Xumela" korua- rekin.
18:00etan, Egan taldearekin erromeria.
18:30ean, Toka txapelketa.
20:30ean, Teresa sorginari agurra eta azken traka.

Erakusketa
ANTONIO MERCERO ARETOA
Ekainaren 5a arte
Brancussiko ikasleen margolan eta arte-lanen erakusketa ikusgai.

Andoain
Argazkialdia 2015
BASTERO KULTURGUNEA
Ekainaren 12ra arte
Argazkialdia 2015-n barruan, Lobo Altuna, Iñigo Royo, Beñat Arregi eta Nagore Legarretaren argazki erakusketa. Tailer- rarak eta ekintza ugari izango dira. Infor- mazio gehiago, www.argazkialdia.com.

Usurbil
Hitzaldia
POTXOENEA
Asteazkena, 18:30
Idoia Lekuek gidatutako musikaterapia saioa izango da.

Antzerkia
SANTUENEAKO FRONTOIA
Ostirala 5, 17:30
"Txipli Txapla-Tomasen abenturak" an- tzezlana ostean, txokolatea eta bizko- txoak banatuko dira.

Lasarte-Oria
Zabaletako jaiak
JALGI KAFE-ANTZOKIA
Asteartea 2, 18:00etatik aurrera
Haurren jolasak. Eskulanak: "Birzikla- pen tailerra" eta kamixeta margoketa. Oharra: kamiseta zuri bat eraman.
20:00, japoniar bonbak

Asteazkena 3, 18:00etatik aurrera
Herri-kirolak, haurren jolasak, opari arrantza eta antzerkia.
20:00, japoniar bonbak

Osteguna 4, 18:00etatik aurrera
Amaraun Klubak antolatutako "Jola- sen altxorra" eta oparien zozketa mun- diala.

19:00etan, Lasarte-Oriako musika eskolaren emanaldia.
20:00etan, japoniar bonbak

Ostirala 5
18:00etan, Antzerkia eta ondoren, txokola- tada.
19:00etan, Teresa sorginaren jaitsiera txala- partarekin. Jarraian, pregoia
19:05ean, dantza herrikoa (sorgin dantza)
19:15ean, Dinbi Banda batukada.
19:30ean, Jalgune-ko lagun- en emanaldia.
20:00etan, Itzarturekin erromeria.
22:00etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza garaikide taldea.
23:00etan, Itzarturekin erromeria jarraipena

Larunbata 6
9:00etan, diana
11:00etan, Zabaletako 2. sorgin-krosa

12:00etan, VIII. Joxe Migel Aranzadi eskoba txapelketa.
15:30ean, VIII. Joxe Migel Aranzadi mus txapelketa.
16:30ean, txirrindulari lasterketak.
18:15ean, Euskararen taupadak (Irrien lagunak puzgarriak)
19:30ean, japoniar bonbak
20:00etan, bertso saioa: Ane Labaka, Eli Pagola, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia. Gai jartzaile Unai Muñoa.
00:00-04:00, Gazte rock gaua: Gora- galeak, Auskan eta talde sorpresa.

Igandea 7
Denok baserritarrez jantzita
09:00etan, diana eta auzo garbiketa txapelketa
11:00etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako euskal dantza saioa.

— Herritarren txokoa —

Lasartetik Esloveniara!!
Lasarte taldea, aurten ere, udako bidaia prestatzen ari da. Bisitatuko dituren lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjonako kobazuloak, Istria... Interesa duzenok deitu telefono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

Oriatarren bazkaria
Karmengo Amaren egunean, uztai- laren 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kapera- ren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribetxeberria apai- zari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzua- rengatik. Bazkariaz gozatu nahi duten herritarrek jatetxean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Santa Ana pintxoa
Aterpeak Santa Ana egunean, uzta- lak 26, Santa Ana pintxoa egitas- moa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten taberne- k harremanetan jarri beharko dute Aterpeako kideekin 637 95 50 30 telefonoan edota itziarirurzun@hotmail.com helbide- ra mezua bidalita.

Sorgin dantza zapi
Sorgin dantzako zapiak salgai izango dira entseguetan, Jalgin edota Ttakunen. Kotoizko zapiak 9 eurotan salgai izango dira eta akrilikoak 4 eurotan.

— Hemeroteka —

Duela 1146 ale

1998ko ekainean, Zabaletako festen laburpena jaso zuen TXINTXARRI-k. Gamusinoak baino azkarrago ibili ziren urte hartan auzoko haurrak. Ramontxo, Muxi eta Puxi pailazoe- k haur eta hain haur ez zirenen irribarreak eragin zituzten.

Lasarte-Oria Irratizaletuen laguntzarekin goitibeherak zirrargarriak izan ziren. Rock kontzertua, Olatz Korta abes- laria, mus txapelketa, herri kirolak... jai arrakastatsuak izan zirela jasotzen zen baita eguraldi txarrari aurre egin behar izan ziotela ere. Auzoan pilotalekua eta bildo- kia behar zutela aldarrikatu zuten festetan ere Zabaletako bizilagunek.

Bihar hasiko dira Zabaletako aurtengo jaiak eta beste urte batez, ekint- za egitarau zabala prestatu dute hutsik egin gabe.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Larunbat arratsaldean Añorgako Arkaitz Dantza taldeak, Hernaniko Ttarla Dantza taldeak eta Erketz EDTk I. Dantzari eguna ospatu zuten Okendo plazan. Ekitaldi ederra eskaini zuten hiru taldeek.



Gaztetxoen taldeek emanaldi ederra eskaini zuten atzo arratsaldean.

Euskal Dantzaz blai

I. Dantzari eguna eta Dantzari Txiki egunaz gozatzera gerturatu ziren Okendora herritarrak

Erketz dantza taldea eta hainbat talde gonbidaturen eskutik euskal dantzak izan dira nagusi asteburuan Okendo plazan. Larunbat arratsaldean helduen taldeen emanaldiez gozatzeko aukera izan zen; atzo, berriz, etxeko txikien txanda izan zen.

TXINTXARRI

Erketz Dantza taldeak 50. urteurrena ospatuko du 2018. urtean eta motorrak berotzen joateko hainbat ekitaldi antolatutako ditu.

Honi esker, asteburu honetan euskal dantzak nagusi izan dira herrian. Larunbatean, lehen aldiz Dantzari eguna ospatu zen eta atzo XXVII. edizio duen Dantzari Txiki eguna.

Larunbat arratsaldean, Erketz EDT-ko helduen taldeak Añorgako Arkaitz eta Hernaniko Ttarla dantza taldeen bisita izan zuen.

Hiru taldeek Zumaburutik Okendora desfilea eta bi geldialdi egin zituzten herriko kaleak euskal doinu eta dantzez beteaz.

Okendo plazara iristean hasiera modura, hiru bikotek talde bakoitzeko bana agurra dantzatu zuten.

Ostean, taldeen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zen.

Dantzari Txiki

Atzo txikiek hartu zituzten kaleak. Santurtziko Zugaitza, Falcesko Makaia, Oreretako Ereintza, Andoaingo Urki eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskolako eta Erketz txikiko haur eta gazteek egun paregabea izan zuten.

Goizean herriko kaleetatik ibili ziren taldeka haien emanaldiak eskainiz.

Bazkal ostean, desfile txiki bat egin eta Okendon bildu ziren talde guztiak haien dantzak erakusteko.



Dantzari Txiki egunari amaiera emateko guztiek batera fandango, arin-arin eta kalejira dantzatu zuten.



ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

www.multiópticasgipuzkoa.com

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan